

## Santo Tomas eguna ospatzeko, txistorradak gaurtik igandera bitarte

Bost txistor jate egingo dituzte egun hauetan, Urumea bailaran: Ereñotzuko Txirrita eskolan eta Hernaniko Zelabide auzoan egingo dute gaur; Goiz Eguzkin eta Hernaniko Gaztelekuan bihar; eta Lizeaga auzoan etzi.

### HERNANI-EREÑOTZU SANTO TOMAS

Bihar da Santo Tomas eguna, eta aurreko asteburuan dagoeneko ospakizunak izan baziren ere, txistorradak egingo dituzte egun hauetan, bailaran.

Ereñotzun izango dute aurreneko hitzordua, gaur eguerdian, urteroko ospakizunarekin. Talo eta pintxo postuak jarriko dituzte Txirrita eskolan, baina ikasle eta irakasleek ez ezik, guraso eta auzotarrek ere izango dute festara batu eta txistorradaz gozatzeko gonbitea. Goizeko 11:30etan hasiko dute hamaiketako, ereñotzuarrek.

Eta gaur bertan, Hernanin ere izango da txistor jaterik. Zelabide auzo elkarteak, aurten aurrenekoz auzoko jaiak ez ezik, Santo Tomaseko txistorrada ere antolatu du. Gabriel Zelaia plazan izango da, arratsaldeko 18:00etan hasi eta 21:00ak arte.

**Txistor jatearekin, saskien zozketak eta sari banaketak Goiz Eguzkin eta Lizeagan** Santo Tomas egunarekin jarraituko du festak, bihar. Urteroko zita jarri du Goiz Eguzki jubilatuen elkarteak ere; eta 11:00etan hasita, gonbidatuei harrera egin eta banatuko dituzte udazkeneko karta eta herri jolas txapelketetako sariak. Ondoren, Ga-



Hernaniko Eskubaloi Taldeak ere jarri zuen postua aurreko larunbatean, Plaza Berri ondoan.



Taloak egiten aritu zen etengabe, San Joan Konpartsa.



Urteurrena ospatzeko jarri zuen postua, Kontrakantxak.

bonetako lau saski zozketatuko dituzte; eta azkenik, txistorrada izango da.

Bihar egingo dute txistorrada Hernaniko gaztetxoek ere, Gaztelekuan. Eta Donostian jarriko du postua San Joan Konpartsak, Gipuzkoa plazan.

Eta bukatzeko, iganderako jarri du hitzordua Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak. Eguerdiko 12:30etan jarriko dute postua, Urumea ikastolan; eta saski bat zozketatuko dute 13:00etan, elkarteak bazkideen artean.

Etzi egingo dute txistorrada Portu auzoan ere, 12:00etan Ibarrolaburu plazan; eta bertan ere zozketatuko dute saskia. **K**

### EREÑOTZUN

GAUR

**Txirrita eskolan**, talo eta pintxo postuak, auzotar eta gurasoentzat. 11:30etatik aurrera.

### HERNANIN

GAUR

**Zelabide auzo elkarteak** antolatuta, 18:00etatik 21:00etara Gabriel Zelaia plazan.

BIHAR

**Goiz Eguzkin:** aurrena, 11:00etan, gonbidatuei harrera eta udazkeneko karta eta herri jolas txapelketetako sariak banaketa; ondoren, Gabonetako lau saskien zozketa;

eta jarraian, txistorrada.

**Gaztelekuan**, txistor jana.

ETZI

**Portuko auzo elkarteak antolatuta**, 12:00etan Ibarrolaburu plazan. Ondoren, Gabonetako saskia zozketatuko dute.

**Gibelalde auzo elkarteak antolatuta**, 12:30etatik aurrera Urumea ikastolan. 13:00etan saski bat zozketatuko da bazkideen artean, eta beste bi saski emango zaizkie, etxearen kanpoaldea ondoen apaindu duten auzotarrei (gaur egingo dute horien balorazioa).



## 'Adios' eta 'Kikoriki' Hernanin, eta 'Oreina' Goizuetan

### GOIZUETA-HERNANI ZINEA

Zine saioak izango dira asteburu honetan, Hernanin eta Goizuetan. Biterin jarriko dituzte bi pelikula: *Adios*, 16 urtetik gorakoentzat, gaur 22:30etako saioarekin hasita, astelehenera arte; eta *Kikoriki* guztientzat, bihar eta etzi 16:30etan. Goizuetan, berriz, *Oreina* filma jarriko dute igandean, 18:00etan Xalto eskolako jangelan, 12 urtetik gorakoentzat; sarrera, 2 euro.

## Saski bat zozketan gaur, erregionalen partiduan

### HERNANI FUTBOLA

Gaur jokatuko dute Ohorezko Erregional mailako mutilek, 20:00etan hasita Zubipen, Ordiziaren kontra. Eta partiduen ondoren, saski bat zozketatuko dute, CD Hernaniko bazkideen artean. Zozketan parte hartzeko, doako txartelak banatuko dituzte sarreran.

## Bi partidu jokoan gaur, Umore Ona Txapelketan

### URUMEA ESQU PELOTA

Gaur jokatuko dira, Goizuetan, Umore Ona Txapelketako bi partidu, 18:30etan. Kimuen mailakoan ariko dira, Macicioren eta Osese hernaniarrak ariko dira; eta 22 urtez azpikoetan ariko da Apezetxea goizuetarra, Zabala amezketarrarekin bikotea osatuz. Bestalde, Gipuzkoako Txapelketan, final laurdena jokatuko du Eñaut Lizeaga astigartarrak, 19:00etan Txominen kontra. Eta Oñatin ariko da Unax Uitz hernaniarra, Aloña Mendiko Garitanoren kontra. Irabaziz gero, ligaxkako lider bukatuko du, eta semifinaletan ez du Anartz Oiartzabal taldekidearen kontra aritu beharko; bestela, bai.

GABON HAUETAN  
OPARITU EDERTASUNA  
ETA ONGIZATEA

**nibiru**  
UNISEK EDERGINTZA ZENTROA

SPA Tratamenduak  
Mikro pigmentazioa  
Masajeak

Indiba Tratamenduak  
Manikura  
Pedikura  
Fotodepilazioa  
Automakillaje  
ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI  
943 24 35 60  
www.nibiruedergintza.com

**Amaita**  
arrandegia

Arrainak  
Itsaskiak  
Fresko eta  
izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72  
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

**MARISCOS HERNANI**

Javier Justiti  
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani  
943 555 156  
mariscos.hernani

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**  
www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

\* Zerbitu partikularrak eta aseguru etxeekin  
\* Erresketak  
\* Lekualdatzek  
\* Beilatokiak  
\* Eskolak, korak...

**EGURALDIA**  
**GAUR** Fronte bat iritsiko da goizaldean, eta euri pixka bat egitea espero da gaur. Haizeak mendebaldera egingo du, eta euritara joko du goizean. Hortik aurrera, tarteka soilik egingo du, eta ostertek ere zabalduko dira. **Min.9° / Max.15°**

**BIHAR** Haizeak indarra hartuko du bihar, berriro. Hego-mendebaldetik ibiliko da goizean, oso zakar, eta mendebaldera aldatuko da gero. Lainotuta egongo da zerua, bereziki eguerdik aurrera, eta baliteke euri pixka bat egitea ere. **Min.10° / Max.21°**

**ARGITARATZAILA**  
**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Ereñotzako Auzo Urtia**

**GOIZUETAKO UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietak, 7 (Hernani) 943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**ELKARTEA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**ELKARTEA**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Kirol Eguna gaur eta Inuxente Krosa igandean, mugitzeko

Kirolarekin zita bikoitza jarri du Mundarrok. Saio ireki eta erakustaldi ugari izango dira gaur, kiroldegian.

**ASTIGARRAGA MUNDARRO**

Kirola egin eta gorputza mugitzeko, zita bikoitza jarri du Mundarro Kirol Elkarteak, egun hauetarako. Gaur bertan egingo dute aurrenekoa, Kirol Eguna ospatuko baitute, Astigarragako kiroldegian. Arratsaldean izango da hori, 16:00etan hasita.

Haurren txanda izango da lehenik, eta erakustaldiak eskainiko dituzte, 17:15ak arte. Eta ondoren, saio irekiekin hasiko dira: Strong eta Jump Fit saioak 18:00etatik 19:00etara; Ziklo Indoor 18:15etatik 19:15etara; eta Hiit, Zumba, Bungee eta Ziklo azkenik, 19:15etan hasita.

Eta bukatzeko, afari batekin eta mozorro lehiaketarekin borobilduko dute eguna. Saioretan



Erakustaldiak eskainiko dituzte haurrek gaur, Kirol Egunari hasiera emateko.

zein afarian parte hartzeko, aldeztu behar zen izena, abenduaren 13ra arte.

**Inuxente Kroserako, izenematea egunean bertan** Bigarren zita, iganderako jarri dute, urteroko Inuxente Krosarekin. Arratsaldeko 16:30etan hasiko dira haurren lasterketak, eta 17:30etan izango da hel-

duen txanda, 6 kilometro osatzeko. Guztiak, Kale Nagusitik abiatu eta bertan bukatuko dira.

Haur zein heldu, igandean bertan eman beharko dute izena, irteera gunean, 15:30etatik aurrera. Haurren kasuan doakoa da, eta helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Opari bana jasoko dute partehartzailerak, eta sariak azkarrenek. **K**

## Aurrekontuak onartzeko plenoa, gaur arratsaldean

18:30etan izango da, udaletxeko areto nagusian. 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa ere, lantzeko gaien artean.

**ASTIGARRAGA UDALA**

Gaur egingo du Astigarragako Udalak, 2020 urteko azkeneko plenoa. Arratsaldeko 18:30etan izango da, udaletxeko areto nagusian; eta guztira, zazpi puntu izango dituzte lantzeko. Horien artean dago, 2020ko Udal Aurre-

kontuaren behin betiko onarpena, eta dagoeneko eman dute aditzera alderdi guztiek, zein izango den beraien botoa: EH Bilduren Udal Gobernuak alde, EAJ-PNV kontra; eta abstenitu egingo da PSE-EE. Aurrekontuei buruz, erreportajea argitaratuko du Kronikak, biharko alean.

Plenoko gainerako puntuen artean daude, 2020-2023rako dirulaguntzen plan estrategikoa, 2020ko langileen zerrenda eta plantilla organikoa, kultur etxe berriko obraren deklarazioa, eta Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa zehatza. **K**

## Bertso-poteoan gaur, bertsolari zein herritar

18:30etan abiatu, eta kaleetan barrena ibiliko dira. Bestalde, sarrerak salgai daude 'Auskalo zeinek jarriak' emanaldirako.

**HERNANI BERTSOLARITZA**

Martxan da Bertsolata, beste urte batez, Hernaniko Irailio Panttalone Bertso Kabiyak antolatuta. Eta gaurko jarri dute hurrengo hitzordua: bertso-poteoa egingo dute herriko kaleetan barrena, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte haiekin batu

eta parte hartzera. Bertso eskolako zenbait bertsolari ariko dira *erritmoa* markatzen.

Gabon Gauean, berriz, Olenzero hartuta ibiliko dira, baserri baserri. Eta hilaren 26an izango da aurreneko emanaldi potoloa, ostegunarekin: *Auskalo zeinek jarriak* bertso jarrien emanaldia eskainiko dute Unai eta Eñaut Agirre anaiek, beste hiru gonbidatu berezirekin: Jexux Mari Irazu, Joxan Goikoe-txea eta Imanol Kamio. Biterin izango da, 19:00etan; eta sarre-rak dagoeneko salgai daude, Dobera Euskara Elkartearen (Larramendi kalea, 11). **K**

## Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

**HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK**

Ostiralero bezala, hitzordua jarri dute Hernaniko preso eta iheslari senide eta lagunek. Kontzentrazioa egingo dute, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Zinkoenean.

## Jaiotza eta Olentzeroa jartzeko, zita bihar

**HERNANI ITURRITXO ELKARTEA**

Bihar jarriko du urteroko jaiotza eta Olentzeroa, Iturritxo elkarteak, Atarrabiyo parkean. Eta horretarako, hitzordua egin dute, goizeko 09:00etan auzo elkartearen lokalean, laguntzera gerturatu nahi duten guztientzat.

## IRAGARKI MERKEAK

**Martxan dagoen alimentazio denda salgai**, jubilariazogatik, Hernaniko Etxeberri auzoan.  
**Deitu: 647 886 950**

**Esperientziadun andreak**, etxetan lan egiteko ikastaro sozio-sanitarioa duenak, lan egingo luke adinekoak zaintzen edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 7:00-9:00; 10:30-17:30.  
**Deitu: 654 122 548**

**Sagardotegi garaian parrilan lan egiteko norbaiten bila gabiltza. Deitu: 659 48 92 02**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Mus eta Tute Txapelketetako txapeldun eta azpitxapeldunak, jasotako sariekin.

## Karten asteburua aurrekoa, Karabelen

Josean eta Raimundo nagusitu ziren musean, eta Karmele eta Jon tutean.

**HERNANI KARABEL AUZOAN**

Kartak izan ziren protagonista Karabel auzoan, joan den asteburuan. Mus eta Tute Txapelketak jokatu zituzten, giro ederrean; eta bi bikote izan ziren nagusi azkenean: Joseanek eta Raimundok irabazi zuten Mus

Txapelketa, eta Karmelek eta Jonek Tute Txapelketa. Urdaiaz-piko bana eta kopa jaso zuten lau irabazleek, baina bi txapelketetako finalistek ere izan zuten saririk, Gabonetako kaxa eder bana jaso baitzuten zortzi finalistek. Argazkian ageri dira, jasotako opariek.

Eta Gabonei segida emateko, astelenerako jarri du hitzordua Olentzerok, hilaren 23an, Karabeleko haurrekin.

Arratsaldeko 18:00etan iritsiko da ikazkina auzora, eta haurrekin egoteaz gainera, haien gutunak ere jasoko ditu Olentzerok, bere bisitan. **K**